

XIII. IPUIN LEHIAKETA



ARRIETA: 94 615 30 65

FRUIZ: 94 615 32 10

GAMIZ-FIKA: 94 615 31 14

MEÑAKA: 94 674 21 01

Aurkibidea

• Agurra	3
• Parte hartzaileak eta epaimahaikideak	4
I. Kategoria (5-6 urtekoena)	5
II. Kategoria (7-8 urtekoena)	9
III. Kategoria (9-12 urtekoena)	13
IV. Kategoria (13-17 urtekoena)	23
V. Kategoria (18 urtetik aurrera)	32

ALKATEEN AGURRA

Atsegin handia da guretzat gure herritarrek egindako lanak liburuxka honetan bildu eta zuei danoi, beste urte batez, eskaini ahal izatea.

Esku artean dozen liburutxu honek argi printzatxoa izan gurako leuke "krisia" berba nagusitu jakun garaiotan. Izan be, bertan jasotakoak irakurrita konturatu zorie, krisiak krisi, gure herritarrek euskereari jagokozenetan sendo eusten deusiela, eta egunean-egunean lantzen eta hauspotzen dabezala gure hizkuntzea eta kultura.

Lerro honeetatik, bada, gure eskerrik beroena lehiaketean parte hartu dozen guztioi, akuilari lanetan aritu izan zarien guraso, lagun, hezitzaile zein liburutegi/ludoteka arduradun guztioi; eta zelan ez, gonbidapen zabala herritar dan-danoi hemen bildutakoak irakurri eta datorren urteko lehiaketean parte hartu daizuen.



Edurne Torrealdai
Arrietako alkatea



Jose Luis Elgezabal
Fruizko alkatea



Mª Jesus Menika
Gamiz-Fikako alkatea



Aitor Ugarte
Meñakako Udaleko alkatea

XIII. IPUIN LEHIAKETA

PARTE HARTZAILEAK 2010

- Antolinez Mendez Maite
- Argiarro Zamakona Mirari
- Brogueras Etxebarria Alba
- Ciriero Otazua Nekane
- Diez Robertson Alexander
- Elgezabal Monasterio Goiaz
- Enzunza Mallona Ainhoa
- Enzunza Mallona Irati
- Enzunza Mallona Olatz
- Fayanas Gangoiti Markel
- Gallastegi Gomez Aloña
- Gallastegi Gomez Garazi
- Gallastegi Gomez Olaia
- Goitisoló Uriarte Jone
- Henderson Madariaga Kiera
- Larrabe Hernaez Lander
- Larrabe Hernaez Mikel
- Muga Gonzalez del Hierro Amelia
- Muga Gonzalez del Hierro Josu
- Muniozgueren Arostegi Bittor
- Olazar Barona Ian
- Olazar Barona Leire
- Reichenberger Caballero Irati



EPAIMAHAIKIDEAK

- BARAIAZARRA TXERTUDI PILARE
- MENIKA LARRINAGA IGONE
- MURUAGA GEZURAGA IKER
- YARTO GOIRI AITZBEA

I. Kategoria
(5-6 urte bitartekoak):
Marrazkiak

I.SARIA


Egilea: Amelia Muga

Adina: 5 urte

Herria: Arrieta

UDAZKENA

UDAZKENA



II.SARIA

Egilea: Josu Muga

Adina: 5 urte

Herria: Arrieta

GAZTELU EDERRA

GAZTELU



III.SARIA

Egilea: Aloña Gallastegi Gomez

Adina: 5 urte

Herria: FRUIZ

TXIMELETA HEGALARIA



II. Kategoria **(7-8 urte bitartekoak)**

Egilea: Olaia Gallastegi

Adina: 7 urte

Herria: Fruiz

ABENTURA MAGIKOA

Egun batean neska bat eskolara joan zen eta eskolatik itzuli zenean dena hankaz gora topatu zuen. Amarengana korrika joan zen baina ama ez zegoen etxean. Orduan bere lagunaren etxera joan zen eta gertatutakoa kontatu zion. Elkarrekin etxea miatu eta miatu ibili ondoren, ez zuten ama aurkitu baina bai ohartxo bat:



Ama aurkitu nahi baduzu, 3 froga hauek bete beharko dituzu:

1. Mendiko erreka ura hartu eta gorde
2. Lore magikoa aurkitu
3. Sugandilaren buztan ordea moztu

Hori guztia egin ondoren, denak nahastu eta irteten den edabea hartu behar duzu eta horrela aurkituko duzu ama.

Bi neskak mendi handira joan ziren, han erreka ura hartu eta gorde egin zuten. Une horretan, lore magikoa ikusi zuten baina elefante bat zebilen eta lorea zapaldu nahi zuen. Hori ikusirik, bi neskak korrika joan ziren eta eurretari batek, salto egin eta elefante gainera igo zen; besteak, buztanetik tira egin zion, eta bien artean elefantea lurrera bota zuten; gero, lorea hartu eta erreka urarekin gorde zuten.

Ondoren galdetu zuten: “Zein zen hurrengo proba?”



Han zebilen txantxangorri batek esan zien hirugarren proba sugandilaren buztan ordea mozte zela. Horrela bada, neskek -txantxangorriari eskerrak eman ondoren- bidean aurrera jarraitu zuten sugandila bat aurkitu arte. Sugandila bat ikusi zutenean, korrika hasi eta sugandilaren gainera salto egin zuten baina ez zuten harrapatu. Bideari jarraitu zioten, minutu gutxira gaua iritsi zen eta txantxangorriak akanpatzeko toki polit bat erakutsi zien. Txantxangorriari eskerrak eman eta lotara joan ziren.

Hurrengo egunean beste sugandila bat aurkitu zuten, hura harrapatzea errazagoa izango zen lotan baitzegoen. Isil-isilik hurbildu eta buztan ordea kendu zioten.

Bildutako guztiak atera eta txantxangorriak –berriro laguntzeko asmoz- hostozko kupel bat ekarri zien. Lehengo ura bota zuten; gero, lorearen magia; eta azkenik, sugandilaren buztan ordea. Dena nahastu eta txantxangorriak -lagundu nahian- edalontzia ekarri zien. Orduan bere laguna txantxangorriak gidatuta etxera heldu zen. Gero, neskak koilara hostozko kuplean sartu, edabea edan eta txis-txas etxean agertu zen eta sukaldean ama aurkitu zuen.

Afaldu ondoren, ohera joan eta bere lagunarekin bizi izan zuen abenturarekin amets egin zuen.



Hau horrela bada ez bada
sartu dadila Fruizko plazan

Egilea: Nekane Ciriero Otazua

Adina: 7 urte

Herria: Arrieta



Behin batean bazen oso dotorea zen printzesa bat.

Egun batean printze bat aurkitu zuen eta honela esan zion printzeak printzesari "Nahi duzu nirekin ezkondu?" eta printzeak erantzun zion "Bai, zurekin ezkonduko naiz".

Egun batean printzeak beste herrialde batera joan behar izan zuen eta esan zion printzesak "Ez joan, hemen gelditu, mesedez".

"Agur, lasai egon, bihar bueltatuko naiz".

Printzeak arazo bat eduki zuen eta ezin izan zen etxera bueltatu. Orduan printzesak esan zuen "Noiz etorriko da nire printzea. Etorri, mesedez, etorri" hasi zen eta printzesa triste zegoen eta galdetzen zuen "Non ote dago nire printzea?".

Eta egun batean printzea etxera bueltatu zen eta zorionsu bizi ziren.



III. Kategoria
(9-12 urte bitartekoak)

Egilea: Ian Olazar Barona

Adina: 11 urte

Herria: Gamiz-Fika

Bazen behin Txakuspin zeritzon deabru gaizto bat. Baserriz baserri joaten zen barazkiak lapurtzera baserritarrek lo zeudela.

Halako batean, Txakuspin Azpirre herrira joan zen, baina oso aukera txarra egin zuen, herri horretan Joseba Goikoetxea bizi baitzen. Joseba Euskal Herriko baserritar ospetsuenetakoa zen. Nonork zeozer lapurtu nahi zionean, etxeko txakurrak ohar-tarazi egiten zuen eta Josebak, eskopetaz tiro eginez, hankotsean botatzen zuen.

Ekaineko gau polit batean, Txakuspin barazkiak lapurtzera joan zitzaion Josebari. Txakuspin baratzera heldu zenean, piperrak baino ez zituen aurkitu:

-Gaurkoa bai afari ederra! –esan zuen Txakuspinek astrapala ederra aterata.

Orduan, txakurra ahausika hasi zen eta Joseba ohartarazi zuen. Josebak Txakuspin ikusi zuenean, ezer gertatu ez balitz bezala deabruarekin hitz egiten hasi zen:

- Gabon jauna, ez zara nire piperrak ostuten ibiliko, ezta? –esan zion Josebak oso era atseginean.

- Bai, baina ezin duzu ezer egin geldiarazteko, oso boteretsua bainaiz –erantzun zuen Txakuspinek.

- Ez zaitut geldiaraziko, piperrak eman egingo dizkizut proba bi gaintitzen badituzu.

Deabrua eta baserritarra etxe ondoko patinera joan ziren eta Joseba proba azaltzen hasi zitzaion:

- Balde eta soka honekin ura ateratzea lortzen baduzu, piperrak emango dizkizut.

Orduan, deabru artaburua ez zen konturatu baldeak azpiko aldean zuloak zituena eta lau urte eta erdi egon zen ura atera ezinean. Azkenean, gogaitu egin zen eta baldea eta soka patinera bota zituen eta Josebarengana joan zen:

- Lau urte eta erdi igaro ditut ura atera gurean eta halako batean konturatu naiz ziria sartu didazuna.

- Bai, ziria sartu dizut baina oraindikarren bigarren proba duzu egiteko –esan zion Josebak idi buztarriarekin harri handi bat Gokalde errekarara zeramala.

Orduan, bigarren proba azaltzen hasi zitzaion Joseba:

- Oso erraza da, erreka honek korronte handia du eta, beraz, harri horien gainez gain zeharkatu beharko duzu, baina jausten bazara, ito egingo zara.

Hori entzunda, birritan pentsatu barik, harriz harri saltoka hasi zen. Txakuspin erre-karen erdi inguruan zegoela Josebak idiekin ekarri zuen harri handia bota zuen erre-kara. Harriak itzelezko olatua sortu zuen eta Txakuspin ito egin zen.

Horrela, menderaezina zirudien deabrua, tiroka barik ziria sartuz menderatu zuen Josebak. Holan bazan edo ez bazan ager dadila Gokalde errekarako bazatzen.



Egilea: Olatz Enzunza Mallona

Adina: 12 urte

Herria: Fruiz

IZARO ETA BERE OPOR MISTERIOTSUAK

Bazen behin, neska bat Izaro deitzen zena eta 12 urte zituen; uda zenez, oporretan joan ziren eta bertan, kobazulo bat zegoenez, erabaki zuten kobazuloa ikustera joatea.

Kobazuloan gauza asko zeuden arren, Izaro antzinako gauzak ikustera joan zen berari asko gustatzen baitzitzaizkion, baina, ez zen bere gurasoekin joan, bere gurasoak mineralak ikustera joan baitziren.

Izaro oso pozik zegoen antzinako gauza horiek ikusten eta han zegoen bitartean konturatu zen zerbait zapaldu zuela; beraz, behe-
ra begiratu eta bertan papertxo bat zegoen. Papertxo hori ireki eta han jartzen zuena irakurri zuen neskak:



“1926. urtean notatxo hau idatzi nuen hil baino lehen zuk jakiteko kobazulo honetan mapa bat dagoela. Ni benetan saiatu nintzen mapa hori aurkitzen baina ez nuen lortu aurkitzerik gaixotu egin nintzelako. Kobazulo honetan, lurrean, gezi batzuk daude; gezi horiei jarraitu behar diezu eta mineral bat aurkitzerakoan, mineral hori mugitu eta bi arroka handi ireki egingo dira. Bertara sartu eta zerbait aurkituko duzu. Nik ez dakit zer dagoen, ez bainintzen haraino heldu”.



Izaro oso adi gelditu zen papertxo hori ikustean. Baina, denborarik galdu gabe geziak jarraitzen hasi zen. Handik ordu erdira oso harri distiratsu bat aurkitu zuen, huraxe zen papertxoan jartzen zuen minerala!!!!!! Beraz, minerala ukitu zuen nolakoa zen jakiteko eta ondoan zeuden arroka handi eta zabal batzuk ireki ziren.

Barrura sartzera joan zenean mugikor-
rrak jo zion eta hartu egin zuen:



- Bai?

- Izaro, ama naiz. Esan digute 15 minutu barru kobazuloa itxiko dutela. Etor zaitez kobazuloaren sarrerara bertan baikaude zuri itxaroten.

- Ondo da, gero arte!

- Gero arte!

Izarok mugikorra itzali zuen eta korrika batean kalera irten zen. Bertan zeuden gurasoak itxaroten eta galdetu zion amak:

- Nola pasatu duzu?

- Oso ondo. Eta zuek?

- Oso ondo! –erantzun zuten biek aldi berean.

- Nik ez dut osoa ikusi; beraz, bihar goizean etorriko naiz. Bale?

- Bale.

Izaro oso pozik jarri zen gurasoek baiezkoa eman ziotenean. Hurrengo goizean jarraituko zuen papertxoan jartzen zuena irakurtzen.

Jarraian afaltzera joan ziren eta afaldu ostean, ohera; hurrengo eguna oso gogorra izango baitzen.

Hurrengo goizean, berriz kobazulora joan zen. Aurreko gaueko tokira heldu zenean, minerala lekuz mugitu zuen eta arroka handi eta zabal biak ireki egin ziren berriro.

Barrura sartu zenean, konturatu zen bertan ez zegoela ezer eta orduan aurrera egin zuen.

Han, lurrean botata, lanpara bat aurkitu zuen eta aurkitu bezain laster “Aladinen” antza zuen pertsona bat irten zen barrutik eta esan zion:

- Kaixo, nola duzu izena?

- Ni Izaro naiz eta zu nor zara eta nondik irten zara?

- Ni “Haitzgizon” naiz. Aspaldiko urteetan ez da inor sartu hona, 1926an gizon bat hona heldu nahian ibili zen baina ez zuen lortu hona sartzea, eta orain hemen aurkitzen zaitut eta ikaragarri pozten naiz. Nik egiten dudana da hona datozen pertsoneri 3 gurari eskatzeko esan eta ondoren gurari horiek bete egingo dira. Zuk eskatu nahi dituzun 3 gurari eta ikusiko duzu urteak pasatu ahala bete egingo direla, orduan ondo pentsatu.



Izaro larri-larri jarri zen, ezinezkoa zen, ezin zuen pentsatu, ze gurari eskatuko zuen? Haitzgizonak esan zion denbora agortzen zegoela eta arin eskatzeko bestela kobazuloko harriak itxi egongo zirela eta irten ezinik geratuko zela. Izaro ia negarrez hasi zen eta lehenengo guraria eskatu zuen:

- Lehenengoa da... nire familiako guztien eta nire osasuna ona izatea.
- ZAZ!!!!!!!!!!!!!!! -Eta bete egingo zela esan zion Izarori.
- Bigarrena da... Euskal Herrian denok euskaraz hitz egitea eta horrela euskara ez da inoiz desagertuko.
- ZAZ!!!!!!!!!!!!!!! horrela izan dadila.
- Eta orain hirugarrena falta zaizu, azkena da eta ondo pentsatu, eskatu bezain laster ni desagertu egingo naiz eta.
- Hirugarrena da... -eta negarrez hasi zen. Orduan, arrokak ixten hasi ziren eta Izarok oso azkar eta urduri esan zuen:
- Kobazulotik irtetea atekak itxi baino lehen!!!!!! Eta nire gurasoekin berriz ere elkartzea!!!!!
- ZAZ!!!!!!!!!!!!!!! -Haitzgizona desagertu egin zen eta jarraian Izaro bere hotelaren aurrean agertu zen. Bere gurasoak igerilekuan zeuden eguzkia hartzen eta Izaro ikusterakoan beragana joan ziren, oso pozik zeuden eta ez ziren Izaroren urduritasunaz konturatu.
- Nola pasatu duzu Izaro?
- Oso ondo!!!!!! Gauza harrigarriak ikusi ditut -erantzun zien Izarok oso pozik.

Gurasoak eta bera hondartzara joan ziren segituan Izarok ezin zuen sinetsi kobazulo barruan gertatutakoa eta amets bat izan zela pentsatu zuen eta ahalegindu zen han gertatutakoa ahazten.

Sekretu hura ez zion inori kontatu Haitzgizonaren eta beraren artean gelditu zen, oporrak amaitu baino lehen berriro joan zen kobazulora eta aurkitutako papertxoak kobazuloan utzi zuen harri handi baten azpian eta ohartxoari Izarok hau gehitu zion:

"Nik papertxo hau irakurri ondoren, lortu nuen ezkutatuta dagoena aurkitzea, ez ditzut esango zer den. Zeuk aurkitu beharko duzu, jarraitu bidea eta ikusiko duzu zelako sorpresa!!!

Izaro, 2010eko abuztuaren 23a".

Urteak aurrera joan ziren eta Izarok ez zuen klase egunik galdu gaixorik ez zelako jartzen, bere gurasoak ere oso osasun ona zeukaten, eta harrigarriagoa oraindik, gero eta euskara gehiago entzuten zuen kalean, eskolan, dendetan, lagunaren artean ere euskaraz bakarrik hitz egiten zuten... Zer gertatzen ari da??? Berak eskatutako gurariak betetzen hasiko ote ziren???

Halan bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila bere herriko plazan.

Egilea: Irati Reichenberger Caballero

Adina: 10 urte

Herria: Arrieta

GURASOEN BILA

Bazen behin herritik kanpo bizi zen hamar urteko neskatxa bat. Amonarekin bizi zen txikitatik bere gurasoak joan egin behar izan zutelako, baina berak ez zekien zergatik. Herriaren gainean baso bat zegoen eta baso ondoan bizi ziren. Bazegoen erreka bat eta zuhaitz eder bat eta han egoten zen goizean eta gauean. Gitarra jotzen zuen Nereak eta jotzen zuen bakoitzean animalia pilo bat hurbiltzen ziren: arrainak, txoriak, txakurrak, katuak, oreinak...

Oporrak bukatu ziren eta Nerea beti bezala eskolara bueltatu zen poz-pozik. Andereñoak jotake lanean jarri zituen berriro:

- Ea Haritz, esan landarei buruzko zeozer.
- Guri oxigenoa ematen digutela.
- Oso ondo.
- Ea Nerea, esan animaliei buruzko zeozer.
- Nire lagunak direla.
- Kar, kar, kar... -mutilek- hori ez da ikasi duguna, kar, kar, kar...

Ordu batzuk geroago.

Triiiiiin !!!

- Agur, andereño –besteek.
- Andereño, etxera noa gaur –Nereak negarrez.
- Bai, bai, joan zaitez lasai.

Nerearen lagunek esan diote:

- Joango gara zurekin Nerea?
- Ez, lasai. Mila esker. Agur.

Etxera heldu zenean amamari dena kontatu zion, bazkaltzen zuten bitartean. Gero gitarra hartu eta errekarra joan zen. Kantatzen ari zela, paperezko itsasontzi bat egin zuen eta barruan gutun bat sartu zuen eta errekek eraman arte itxaron zuen.

- Nerea, afaria!!! –esan zuen amamak.
- Itxaron pixka batean mesedez, aurrera, aurrera, bai!
- Agur itsasontzi eta zurekin batera gurasoak ekarri !!!

Hurrengo egunean oso goiz esnatu zen, plan bikaina zuen pentsatuta. Arineketan gosaldu zuen eta plazara ziztu bizian joan zen. Eskolan zegoenean esan zien lagunei:

- Plan bat daukat baina zuen laguntza behar dut.
- Ongi da –lagunek.
- Eskola bukatu eta gero nire gurasoen bila joango gara.

- Bale, bale.

Eskola bukatu ondoren, bakoitza bere etxera joan zen gauzen bila: lo-zakua, jana-
ria, txubaskeroa, mapak... Gero, berriro elkartu ziren plazan eta bideari ekin zioten.
Hainbat herritatik pasatu ziren eta galdetzen eta galdetzen egon ziren, baina alferrik,
inork ez zituen ezagutzen.

Lehenengo herrira heldu zirenean, kasualitatez jaiak ziren. Jende asko zegoenez ba-
tzuei galdetu zieten:

- Ba al dakizu nortzuk diren Josu Agirre eta Maite Goikoetxea?

- Ez, sentitzen dut.

- Ez, ez, lasai eta eskerrik asko.

- Ba al dakizu nortzuk diren Josu Agirre eta
Maite Goikoetxea?

- A, bai, uste dut haiei buruz zeozer entzun
dudala.

- Eta ba al dakizu non dauden?

- Ez, hori ez dakit.

- Eskerrik asko, benetan.



Horrela ibili ziren gure lagunak alde batetik bestera, baina gurasoen arrastorik ez.
Azkenean, norbaitek baietz esan zuen:

- A! Bai, nire dendan lan egin nahi izan zuten, baina ez nuen laguntzarik behar izan.

- Nora joan ziren gero?

- Ez dakit, baina seguraski ondoko herrira.

- Eskerrik asko, agur!!!

Herritik irteterakoan esan zuen Nereak:

- Orain ezin gara joan, laster ilundu egingo du eta.

- Bai, arrazoi osoa duzu -lagunek.

Iluntzen hasi zenez lo egiteko leku baten bila hasi ziren. Aurkitu zuten leku bakarra eli-
za izan zen eta arin batean lo-zakuak atera egin zituzten eta lo-zaku barruan zeudela,
izarrei begira, kontu kontari ibili ziren.

Pozik eta kementsu esnatu ziren, baina bigarren herrira heldu bezain laster... Herrian
ez zegoen inor, aurrera jarraitu zuten pixka bat izututa eta atez ate joan ziren. Inork
ez zuen aterik zabaltzen baina halako batean, emakume zahar eta hortz bakardun
batek atea zabaldu eta oihuka esan zien:

- Baina! Nor da!

- Ezagutzen dituzu... -galdetu zuten guztiek.

- Ez dut inor ezagutzen eta ez dut inor ezagutu nahi! Orain alde hemendik ume ziztri-
nok eta ez itzuli!!!

Korrika herritik atera ziren eta konturatu gabe bide okerra hartu zuten, zeren haien
bidea beherantz joaten baitzen eta haiek hartu zutena gorantz zihoan. Orduak eta

orduak egin zituzten oinez, gosez hilda eta itxaropenik gabe, baina bat-batean kea ikusi zuten eta korrika hurbildu ziren.

Baserri batera heldu ziren eta baserritarrak han lo egiten utzi zien eta zopa beroa eskaintzen zien bitartean haien abentura eta zergatia kontatu zioten. Eta hura ezuste, baserritarrak gurasoak ezagutzen zituen. Zuela bi aste handik pasatu ziren eta mendia zeharkatuz ondoko herrira heltzeko asmoa zuten.

Goizean ahalik eta arinen atera nahi izan zuten, baina baserritarrak -nahiz eta beraiek kasu handirik egin ez -euria egingo zuela esan zien, eta, gainera, ez zeukaten gogo handirik atso zaharraren etxetik berriz pasatzeko. Beraz, mendirantz jo zuten gurasoen atzetik. Arrazoi izan zuen gizonak eta zerua hodei beltzez bete zen; beraz, lo egiteko leku baten bila hasi ziren. Aurkitu zuten leku bakarra kobazulo bat izan zen eta hara sartu ziren. Lo-zakuak atera bezain laster janaria ikusi zuten lurrean. Oso gose zirenez, pentsatu gabe jaten hasi ziren eta gero lotara joan ziren.

Bitartean herrian oso kezkatuta zeuden gurasoak. Lehenengo gauean haien bila ibili ziren herrian zehar eta arrastorik ez. Goizean, azokatik bueltan, baserritar bat pasatu zen eta ume taldearen berri eman zien. Umeak urrun zeudela konturatu zirenean erabaki zuten ondo antolatu behar zutela bilaketa: mezulari bana bidali zuten ondoko herrietara eta beste talde bat umeen atzetik joan zen.

Nerea eta bere lagunak esnatu zirenean animalia piloa zegoen haien inguruan eta hasieran beldurra eman zieten baina, gero, Nereak lasaitzeko asmoz, esan zuen:

- Lasai, lagunok, ezagutzen ditut, nire etxera hurbiltzen dira askotan.

Umeak lasaitu egin ziren eta asko eskertu zuten animalien konpainia hotz handia egiten baitzuen.

Han ordu asko egin ondoren, azkenean, euria atertu zuen, baina animaliak aztoratu egin ziren kanpoan entzuten zenarekin:

- Nerea, Leire, Alaitz... non zaudete !!

Gurasoak koban sartu zirenean han zeuden umeak basapiztiaz inguratuta eta ateratzeko esan eta aita batek eskopeta atera zuen animaliak hiltzeko:

- Ez, ez hil animalia bat ere, bestela ez gara aterako.

- Baina zergatik?

- Gure lagunak direlako eta bizitza salbatu digutelako janaria eta beroa eman ez.

- Baina, orduan zer egingo dugu animaliekin?

- Hemen utzi lasai.

- Ongi da, baina orain goazen.

Herrira heldu zirenean guraso guztiak poztu ziren, baina umeak ez hainbeste, zeren eta Nerearen gurasoak ez baitzituzten aurkitu. Egun batzuk geroago mezulariei esker...

Nereak amamari dena kontatu zion, baina oraindik triste zegoen, eta ohera joan zen negarrez. Egun batzuk geroago, ohean zegoela, musutxo batek esnatu zuen, begiak zabaldu bezain laster hor zeuden gurasoak eta esan zien:

- Hau poza, hemen zaudete!!!

IV. Kategoria
(13-17 urte bitartekoak)

Egilea: Leire Irati Enzunza Mallona

Adina: 16 urte

Herria: Fruiz

Tenis pilota bati esker



Ez dut inoiz ahaztuko apirileko goiz eguzkitsu hartako gertaera. Etxean nengoan, 90 m²-ko nire gurasoan pisu txiki eta, era berean, politean, Markinako erdigunetik nahiko hurbil. Garai hartako 20 urte bete berriek gaztaroaren erditik nahiko hurbil sentiarazten ninduten. Lagunekin egunero irteteko joera nuen eta, ahal genuen guztietan, inguruko herrietara hurbiltzen ginen jai girora. Dakizuenez, Euskal Herrian ez dago jai giro fal-

tarik, beraz, astebururo aurkitzen genuen herriren bat jendez gainezka; eta hala ez bazen, autoa hartu eta nonbaitera joaten ginen afaldu eta solasaldi luzea egitera. Normalean sei neska eta lau mutil batzen ginen. Aitor eta Oihane bikotekideak ziren hamasei urte zituztenetik eta gainerakoak ikastolan beraiekin batera ikasitako batzuk ginen. Beti ondo konpontzen ginen, ia ez genuen liskarrik edukitzen eta dena kontatzen genion elkarri. Hala ere, beti esaten da lagun asko izan arren, bene-benetakoak gutxi direla eta nire kasuan, Haritz zen lagun berezi hori. Beharbada, betidanik nire gurasoan etxe alboan bizi izan delako eta txikitari ordu gehien berarekin pasatu nituelako. Herriko jende kuxkuxeroak bikotetzat ere hartu gintuen noizbait baina guk ondo baino hobeto genekien lagun onak baino ez ginela. Haritzek nire bizitza goitik behera ezagutzen zuen eta nik berea ere bai. Hainbatek esan zigunez ez da normalena neska baten lagunik onena mutil bat izatea baina gure kasuan halaxe zen eta oraindik ere ez dut Haritz bezalako lagunik ezagutu.

Apirileko igande goiz eguzkitsu hartan nahiko goiz jaiki nintzen ohetik anatomia apunteak ikasteko asmotan. Erizaintza ikasten ari nintzen urte hartan, bigarren kurtsoan hain zuzen ere. Txikitatik ikasi nahi izan nuen hori eta nire ametsa egia bihurtzen ari zen, gutxika-gutxika. Hamaitetarako hiru ordu ikasten emanak nituen eta bat-batean etxeko tinbrea entzun nuen. Gurasoak asteburua pasatzera Nafarroara joanak ziren beraien lagun koadrilarekin eta atea ireki aurretik "Nor da?" galdetu eta inork entzuten ez zuela konturatzean, jarraian ireki nuen. Han ez zegoen inor eta minutu batzuez begiratzen ibilita ere, ez nuen inor aurkitu. Atea ixtera nindoala, ordea, felpudo gainean tenis pilota bat ikusi nuen. Etxean sartu, atea itxi eta pilotak zulo bat zuela ohartu nintzen. Nahiko izututa nengoan, ez nuelako ideia txikienik ere gertatzen ari zitzaida-



nari buruz. Itxura batean normala zirudien pilota haren barrualdean paper zati bat zegoen tximur-tximur eginda. Kontu handiz, paper hori atera eta mezu bat irakurri nuen: "Hiruretan eliza atzeko iturrian". Atzean, zerbaiten letra inisialak ageri ziren, "JTI". Lagunen bat txantxa bat prestatzen ari zitzaidala pentsatu nuen eta ikasten jarraitu nuen. Izan ere, egun gutxi lehenago denon artean Maiteri honen antzeko txantxa bat prestatu baikenion.

Goiza ikasten pasatu, makarro batzuk bazkaldu, dutxa gozo bat hartu eta eliza atzera hurreratu nintzen. Iturri ondoko bankuan eserita hamar minutuz egon ostean, agure zahar bat hurbiltzen ikusi nuen urrunetik. Katxaba zeraman baina ez zuen ibiltzeko oztopo handirik eta ile zuri-zuria zuen. Albotik pasatzean agurtzera nindoan, badakizue herriko agureek gazte guztiak ezagutzen dituzte eta (Mariaren biloba, Antonen semea...); baina gizona nire alboan eseri zen. Betidanik elkar ezagutuko bagenu bezala agurtu eta nola nenbilen galdetu zidan. Nik erantzun egin nion, amonaren lagun horietako bat zela pentsatuz eta erantzuten nenbilela, alkandorako poltsikoan "JTI" idatzita zuela ohartu nintzen. Berehala esan zidan bera izan zela nire etxera igo eta tenis pilota bertan utzi zuena. Galderarik ez egiteko eskatu eta zera aitortu zidan:

"Hara neska. Badakit beharbada ez duzula sinetsiko baina kontatu egin behar dizut. Hogeitertetik behin, 20 urteko neska bat eta mutil bat Lurreko indar berezi batek lotu egiten ditu. Biek hogeitertetik urte dituzten urte berean elkartzeko gero, bizitzako bikotea aurkitzen dutela gertatzen da. Aurten zeu izan zara ohore hori izan duen pertsona eta mutila Leitza bizi da. Nire lagun bat berarekin hitz egiten dago momentu honetan eta hemendik aurrera zuen erabakia izango da elkar ezagutu nahi izatea edo ez. Hau ez da telebistako umore saio bateko broma bat ez horrelako ezer, hau errealitatea da. Munduko pertsona bi hogeitertetik behin elkartzeko hau ez da fantasiazko ipuin bat. Gainera, konprobatu dugu fenomeno hau gertatzen hasi zenetik elkartzeko bikotea ez dela inoiz banatu. Beraz, aprobetxatu aukera eta zoaz Leitza mutila ezagutzera. Ibon du izena eta zin egiten dizut izugarri maiteko duzuela elkar. A, eta ni azti antzeko bat naiz eta fenomeno hauek kontrolatzeko ahalmena dut. Jakin ezazu ez nauzula inoiz berriro ikusiko. Benetan diot, aprobetxatu eta izan maitasun, goxotasun eta zorionez betetako bizia. Gainera zuen kasuan euskaldun bi elkartzeko eta ez duzu munduko beste puntara joan behar zuen maitasuna ezagutzeko, aprobetxatu aukera".

Agurea etorri zen moduan joan zen eta nik zati batean atzetik jarraitu nuen arren, ez zidan kasurik egiten. Berriz ere bankuan jesarri eta denboragarrenean etxera bueltatzea erabaki nuen. Ez nekien gizon hura nondik agertu zen baina gauza bat ondo asmatu zuen, Leitza Euskal Herri osoan gehien maite nuen herria zen. Izan ere, baten baino gehiagotan egona nintzen bertan gurasoekin eguna pasatzen eta asko gustatu zitzaidan herri euskaldun eta polita zen. Hala ere, dena ahaztea erabaki nuen eta Haritzi ere ez nion gertatutakoa kontatu, badaezpada ere.

Handik gutxira uda heldu zen. Oso pozik eta aztoratuta geunden denok eta uda aurrera joan ahala Donostiako jaiak iritsi ziren. Maddik, koadrilako batek, Donostian pisua zuen bertan arkitektura ikasten ari zelako eta jaietako egun pare bat bertan pasatzea erabaki genuen. Lehenengo egunean juerga itzela bota genuen,

nire bizitzako onenetakoa, eta goizean hondartzan bainatu ginen gainera. Bigarren eguna, ordea, hobezina izan zen, batez ere niretzat. Alde zaharreko taberna batean geundela, gaueko hamabi eta erdiak inguruan, mutil altu, errubio, eta guapo bat ikusi nuen tabernan sartzen. Gure begiradak gurutzatu egin ziren hiru aldiz eta halako batean, mutil paregabe hori hurbiltzen ikusi nuen. Elkar agurtu, bi musu eman eta beste kalimotxo bat atera zidan. Antza denez, mutila ere Donostian zebilen ez dakit zer ikasten. Halako batean, izena galdetu zidan eta nik berdin egin nuen. Mutil hori Ibon deitzen zen eta Leitzakoa zen; nik ere nire izena eta jaioterria esatean aurpegi arraroa jarri zuela ikusi nuen baina, besterik gabe, kasualitate hutsa zela pentsatu eta gure bizitzei buruz hitz egiten jarraitu genuen. Ez nuen inoiz hain mutil atsegin, maitekor eta ederrik ezagutu.

Halako batean, kalera irten ginen buelta bat ematera. Hondartzara jaitsi ginen eta harean eserita egon ginen. Bat-batean, "JTI" laburdura ezagutzen nuen galdetu zidan. Nik oso sentsazio arraroa sentitu nuen. Bera al zen? Baietz esan eta niri gertatutako berdina kontatu zidan. Biok erabaki genuen agure zaharra ahaztu eta gure bizitzan aurrera jarraitzea, baina norbaitek edo zerbaitek elkartu egin gintuen. Hura bai zoragarria!

Gau hartatik hona, Ibon eta ni bikote gara. Bikote normala baina era berean berezia. Inork ez daki zerk batu gintuen baina itsasoa eta hareak bezala banaezinak gara. Leitzan bizi garen arren, nire betiko lagunak ez ditut ahaztu; beraiek ere Euskal Herriko toki desberdinetan bizi dira orain, eta urtean hiruzpalau aldiz guztiok elkartzen gara. Baina Haritzekin beti bezala jarraitzen dut. Elkarri gutun pilo bat idazten dizkiogu eta gaur egun bera da Markinan bizi den bakarra. Maddirekin bizi da eta gurasoak bisitatzera noan bakoitzean beraiekin egoten gara. Bestalde, "JTI"-k zer esan nahi duen eta agure haiek nortzuk ziren ez daki inork, ezta guk ere; baina jada berdin dio, elkartuta gaudelako.



Egilea: Leire Olazar Barona

Adina: 13 urte

Herria: Gamiz-Fika

Erosketa Ona, saltzailea hobea

Baziren behin Jose izeneko baserritar bat eta beraren emaztea, Mari.

Etxe abere asko zituzten: hogei oilo, txerri bat, lau behi eta bost txahal, sei katu, txakur bat eta astoa. Denek zituzten beraien lo egiteko lekuak baina astoak bereziki kortako izkina baten zuen bere txokoa eta hara joaten zen gauero.

Saso hartan ohikoa zen baserrietan hainbeste animalia edo gehiago izatea. Gauza da, hauek zuten astoa, Pantxo, zaharra zela eta Mari esan eta esan zebilkiola Joseri saldu egin beharko zutela eta horrela diru altsitxo bat aterako zutela. Josek unekada onak igaro zituen asto horrekin eta pena ematen zion hain mantsoa eta zintzoa izan zen bere laguna handik hara uztea. Gizajoa ez zen gai ezer garraiatzeko jausi barik eta inork ez zuen gura halako piztia etxean eduki.

Egun batean, Jose solotik etxera etorri zenean, Marik hauxe esan zion:

- Ea Jose, ez dok uste asto zahar hori saltzeko ordua dala?
- Baina Mari, ez gendunan berba egin horri buruz ba?
- Bai, baina hik ezetz eta ezetz baino ez huen esan. Begira, asto zahar hau saldu egingo joagu eta beste polit eta gazte bat erosi.
- Eta nork gura izango jon holango astoa?
- Gure herriko azokara etortzen diran kitanoek pozik hartuko leukiek. Hareek dana gura joek. Gainera, beste asto barri bategaz unekada politik igaroko joaguz.
- Ondo jagon, bihar joango gozan azokara.

Horrelaxe, hurrengo egunean goiz jaiki eta azokara abiatu ziren Jose eta Mari euren astoarekin. Azokan, eurengana hurbildu ziren guztiei eskaini zien astoa, baina normala denez, inortxok ere ez zuen nahi izan. Orduan, Josek eta Marik etxean aipatu-tako planari ekin zioten: kitanoen txokora joan ziren.

Hainbat erregateatu ostean 100 pezetatan saldu zieten. Asko izan ez arren astoa saltzea lortu zuten eta pozik joan ziren etxera.

Hurrengo egunetan, Jose solora joaten zen eta Mari barazkiak garbitzen eta konpontzen ibili zen asto berria erosteko dirua lortzeko.

Azkenean heldu zen eguna, bazuten asto berria erosteko beste diru eta azokara joan ziren. Han, asto gazte eta eder bat zegoen, lehengoaren antzeko neurrikoa gainera. Halako batean, kitano bat hurbildu zitzaizen eta hauxe esan zien:

- Nahi al duzue asto hau? Ederra eta prezio onean dut gainera.

- Bai, itxura ederra du, zenbat eskatzen duzu?
 - 600 pezeta.
 - Ez, hori ezin dugu ordaindu, garestitxo da guretzat.
 - Zuentzat 400 pezetatan utziko dizuet.
 - Oraindikarren ere garestitxo da baina itxura galanta duenez, hartu egingo dizugu.
- Normalean, asto zaharrek ilea erdi jausita eta begi gainean zuloak izaten dituzte baina ezagun zen erosi berria gaztea zena, ilea indartsu eta begi gainak bete-bete baitzituen.

Erosketa ona egin zutela eta, pozik hartu zuten etxerako bidea. Astoa ere pozaren pozez zihoala etxera zirudien. Unekada batzuetan, Jose eta Mari zapaldu beharren etorri zen euren atzetik. Etxera hurbildu zirenean, astoa arrantzaka eta arrapaladan joan zen lehengo asto zaharraren txokora. Jose eta Mari zurtz eginda geratu ziren. Hurbildu ziren astoarengana eta ondo begiratu eta gero, euren lehengo asto zaharra zela konturatu ziren. Baina gauza bat ez zuten ulertzen: ilearen bizitasuna, argi dago, margotu egin zioten ilea, baina zelan barrabas lortu zuten kitanoek begi gaineko zuloak betetzea asto zaharrari? Horixe bai meritua.



Egilea: Ainhoa Enzunza Mallona

Adina: 15 urte

Herria: Fruiz

Mikelen Zain

Ni Maialen naiz, 15 urte ditut eta Donostian bizi naiz. Gaur egunerokoa idazten haseta pentsatu dut, orain kontatuko dizuet zergatik izan dudan ideia hau.

Duela hilabete bat eguneroko bat aurkitu nuen amonaren gelan eta berari ezer esan gabe irakurtzen hasi nintzen. Egunerokoa amonak idatzita zegoela konturatu nintzen 15 urte zituenean. Orain 50 urte ditu, oso gaztea da, zeren bai amona bai ama oso gaztetan gelditu ziren haurdun. Egunerokoan hauxe kontatzen zuen:



1975-02-25 Gaur Donostiara etorri gara bizitzera, aitzak lana bertan aurkitu due-lako. Nik 15 urte ditut eta etxe berrira heldu bezain laster osteratxo bat egitera joatea pentsatu dut inguruko lurra pixka bat ezagutzeko. Lasai-lasai bertatik nabilela nire adin inguruko mutil bat ikusi dut arroka baten gainean eserita. Berarengana hurre-ratu eta hizketalditxo bat izan dugu. Kontatu didanez, artzaina da eta lur horietara etorri behar izaten du egunero ardiak zaintzera eta aspertu egiten omen da. Asko gustatu zait mutila euskalduna, atsegina eta ederra baita."

Gero, hainbat egunetan idatzi zuen amonak mutil horri buruz, Mikel Basola deitzen zela, egunero berarekin egoten zela... eta pixkanaka-pixkanaka maitemintzen joan zirela ere idatzi zuen. Mikelekin oso-oso zoriontsua zela.

Nik irakurtzen jarraitu nuen:

1980-04-09 Gaur oso zoriontsu naiz. Mikelek eta biok batera bizitzea erabaki dugu eta Bilbo aldera joango gara. Nik eskatu diodalako izan da, zeren eta Bilbo Donostia baino gehiago gustatzen zait, nire jaioterria delako agian. Mikel oso pertsona ona da eta gustura gaude Bilbon, berari ere asko gustatu zaio hiru hau".

Irakurtzen jarraitu ahala oso pozik bizi zirela, ezkondu egin zirela, lagun asko zituz-tela... kontatzen zuen amonak, eta baita haurdun zegoela ere. Oso pozik zegoela na-baritzen zen idatzitakoaren arabera.

1981-01-06 Orain ordu batzuk Malen, Mikel eta bion alaba, jaio da. Oso ondo joan zait dena, eta Mikel ere nire ondoan egon da eta oraindik ere hemen dago Maleni eta bioi begira. Askotan esan ohi didan bezala, gaur ere errepikatuko dit munduko gizo-nik zoriontsuena dela horrelako familia eder bat duelako. Oso pozik nago!!"



Hainbat egunetan idatzi zuen amonak zeinen zorionsua zen Mikel eta alaba Malenekin, beraiekin egiten zituen gauza guztiak... Baina bat-batean dena aldatu zen, hauxe idatzi zuen:

1981-12-28 *Gabonak dira, orain arte Mikel eta bion artean dena ederto batean joan da eta oso zorionsu izan gara, gainera Maleni ere oso gutxi falta zaio urtebete betetzeko eta bere lehenengo hitzak, bere lehenengo pausuak... ikusten ari gara oso zirrara handiarekin, baina gaur Mikelek berri bat eman dit. Esan didanaren arabera, soldadu joatera derrigortu dute eta Madrileria joan behar du, berak ere ez daki zenbat denbora egon beharko duen bertan baina*

ahal duenean bisitan etorriko dela esan dit. Baina biok dakigu aurrerantzean gure artekoak ez duela lehen bezain ongi jarraituko eta pena handia dut bihotzean. Zera ere esan dit: soldadutza amaitu eta jarraian Biloko etxera bueltatuko dela eta bertan itxaroteko, mesedez.

Gaur nire bizitzako egunik txarrena izan da”.

1982-01-01 *Gaur joan da Mikel eta sekulako hutsunea nabaritzen dut. Ez dut uste nire bizitzarekin jarraitzeko adorerik izango dudarik, baina Malenengatik aurrera egiten saiatuko naiz”.*

1982-06-25 *Uda ere heldu da. Malen gorantz doa eta ezin dut egoera hau jasan. Etxean ni bakarrik nagoen momentuetan oso gaizki pasatzen dut; beraz, nire ahizpa Ainhoarengana joango naiz bizitzera, berak pixka bat lagun nazan alabarekin eta baita niri ere. Uste dut horrela hobeto egongo naizela, zeren eta ezin dut gehiago aguantatu Mikel nire ondoan ez badago”.*

Hori irakurri ostean, amonari egunerokoa irakurri nuela kontatzekotan egon nintzen, baina pentsatu nuen onena irakurtzen amaitu arte itxarotzea izango zela. Ezin nuen sinetsi amonak hain txarto pasatu zuenik. Beraz, irakurtzen jarraitu nuen eta bere eguneroko tristura kontaktzen zuen, eta etxean Malen eta Ainhoa

edukitzeak ematen zion alaitasuna ere. Eguneroko gogoratzen zuen Mikel, baina gero eta argiago zeukan ez zela inoiz itzuliko eta ahaztu egin beharko zuela. Madriletik atzerrira bidali zuten eta ez zeukan haren berririk, ez zekien European edo Amerikan zegoen, ez noiz itzuliko zen. Honen ostean, eta hainbat denbora idatzi gabe egon ondoren, hauxe idatzi zuen:

1990-05-14 *Hainbat denbora egon naiz egunerokoan idatzi gabe, oroitzapen tristeak burutik kendu nahian baina berriz idazten hastea pentsatu dut. Nik oraindik bere zain jarraitzen dudalako, eta gainera gaur Maleni dena kontaktzea pentsatu dut, berak ere jakin dezan zer gertatu zen bere aitarekin”.*

Orduan konturatu nintzen etxean ezer ez zekien bakarri ni nintzela, baina isilik jarraitu nuen egunerokoan falta zitzaidan zatitxo hori bukatu arte.





Konturatu nintzen orain dela gutxikoa zela idatzita zegoena eta eskutitz batzuk ziren. Eskutitz horiek Mikelenak zirela ikustean poztu egin nintzen eta irakurtzen hasi nintzen. Jartzen zuen bueltatu zela eta zain zegoela beraien etxean, baina ez zituela inondik aurkitzen, eta oraindik ere asko maite zituela biak.

Jarraian, arratsalde horretan sukaldean zeuden amona eta amarengana hurreratu nintzen eta dena kontatu nien. Biak zer egin ez zekitela geratu ziren eta ea zergatik ez zen bueltatzen Mikel ikustera beraien lehengo etxera galdetu nien. Bien artean azaldu zidaten orain dela aste batzuk heldu zela gutun hori, eta argi zeukatela ez zela orain dela aste batzuk itzuli, eta bestetik, beldur ere bazirela.

Beraz, inori ezertxo ere esan gabe, lehengo etxera joatea pentsatu nuen. Bertan gizon bat aurkitu nuen, Mikel deitzen zela esan zidan eta Maritxuren (nire amonaren) zain zegoela, aspaldi alde egin zuela, gero Afrikara bidali zutela eta han hainbat urte kartzelan egon zela inorekin hitzik egin gabe eta bakardadean, ez zioten uzten ezta kalera ateratzen ere, dena errakuntza batengatik, droga kontu batengatik, bera ez zen erruduna, eta duela bi hilabete aske utzi zuten.

Argi neukan egia esaten ari zela, eta eskutitza zergatik bidali zuen galdetu nion eta ea Maritxurekin maiteminduta jarraitzen zuen. Asko kostatu zitzaiola Maritxu bilatzea eta ez zela ausartzen berarengana joaten, maiteminduta jarraitzen zuela eta ikusteko gogo handia zuela, baina nik ezertxo ere ez nion esan, ez nor nintzen... eta joan egin nintzen.

Gaur amona eta amari dena kontatu diet eta sekulako errieta entzun ondoren, nirekin etorri behar zutela esan diet. Beraz, bertara heldu eta berehala ezagutu dute elkar eta orain arte galdutako momentu guztiak aprobetxatzea pentsatu dute. Biak eskerrik asko esan eta esan aritu zaizkit. Ni ere oso ondo sentitzen naiz orain.

Orain beraien lehengo etxean gaude denok kontu kontari, baina, batez ere, amona eta ama inoiz baino zoriontsuago ikusten ditut.

Hori dela eta neuk ere egunerokoa idazten hastea pentsatu dut, noizbait zer edo zer gertatuz gero, baten baten laguntza jaso ahal izateko.



V. Kategoria
(18 urtetik gora)

Egilea: Mirari Argiarro Zamakona

Adina: 23 urte

Herria: Gamiz-Fika

GARAZIREN OPOR BEREZIAK

Negu hau, izandako negurik hotz eta euritsuena izaten ari da.

Aurreko asteburuan Elaiak etxea apaindu zuen gabon ornigarriekin. Zuhaitzarekin hasi zen. Bola goriz jantzi zuen eta goi-goialdean, zuhaitz puntan, inoiz ikusi dudan izar disdiratsuen jarri zuen.

Panpinezko Olentzero handi bat erosi zion amak plazan, eta asko eztabaidatu ondoren, bere logelako atean jartzea erabaki zuen. Amaren proposamenak ezeztatu ditu, nahiz eta berak ere jakin, balkoian zintzilikatu beharko lukeela, gero Olentzero etxe horretan sartzea ez ahazteko. Baina ilusioa egiten zion neskatxa gazteari eta amak baimena eman zion bere logelako atean ipintzeko.

Kanpoan hotz egiten du, eta isiltasuna da nabari. Ezta txakurrik ere, ez dute zaunkarik egiten.

Gaur ere, Elaia etxean geratu da, tximiniaren berotasunean.

Ama merienda prestatzen dabil sukaldean. Txokolatea eta eguerdian labean egindako bizkotxo biguna.

Elaia aldiz, butakan eserita dago bere pentsamenduetan murgilduta, lurrera begira telebistaren aurrean, baiian telebista itzalita duelarik. Aspertuta.

Ama merienda ematera hurbildu zaionean, errukitsu galdetu dio:

- Elaiatxo, gaur ez duzu ezer egiteko gogorik ala?
- Ez ama, gaur ez naiz enparantzara joango, hotz egiten du eta. Aimar gurasoekin joan da erosketak egitera. Eta nik irakurtzen nenbilen abentura liburua jada amaitu dut. Espero dut Olentzerok eskatutako bi liburu horiek ekartzea, bestela...
- Nahi al duzu nik istoriotxo bat kontatzea, maitia?
- Oi, ama! Benetan eskertuko nizuke! Olentzeroren atzetik onena zara zu!!!

Amak irribarrea aurpegian duela, bere logelatan, ohe azpian duen kutxatxo urdina hartu du. Kontu handiz ireki ondoren, eta hainbat paperen artean bilatu eta gero, koaderno zahar bat hartu du. Koaderno segundo bat



begiratu eta hizketan hasi zaio:

- Garaziren istorioa kontatuko dizut

Garazik 18 urte bete zituen martxoan, 17an, hain zuzen ere. Uda horretarako planak alde zuzen eginda zituen. Uda berezia izango zen hura, behar zutenak laguntzen emango zuelako.

Okindegi batean egon zen lanean dirua aurrezteko asmoz, eta lortutakoan, autobus txartel bat erosi zuen Bilbotik Toledora joateko, eta hegazkin txartela Malagatik Bilborara itzultzeko.

- Baina ama, Toledora badoa, zergatik da itzultzeko tiketa Malagatik Bilborakoa? – galdetu zuen Elaiak jakin minez.

- Lasai maitia, istorioa aurrera doan heinean ulertuko duzu.



Urriaren 14an –jarraitu zuen amak-, Mungia jaiak amaitu ostean, Garazi Bilbon zegoen, eskuetan bi maleta erraldoi zituelarik, autobusera igotzeko prest. Amari muxu eman zion eta egokitzen zitzaion eserlekuan eseri zen. Autobusa martxan hasi eta malkoak erori zitzaizkion masailetatik behera.

- Zergatik zegoen ba negarrez Garazi, ama? –moztu zuen Elaiak. Udako kanpaldi batera doa eta oso dibertigarriak dira!

- Bai, maitia, badakit. Baina... behar bada, Garazi beldurturik zegoen. Ez dizut esan baina kanpaldi hura ez zen zu joandako kanpaldien antzekoa. Garazi bolondres zihoan gurpildun aulkietan zeuden pertsonak zaintzera. Gazteak zein nagusiak, baina mugitu ezin zirenak.

- Gurpildun aulkiak? Zergatik?

- Ba, kotxe istripuegatik, jaiotzako gaixotasunen ondorioz... Gauza askok kaltetu dezakete gure gorputza, horregatik zaindu behar dugu ahalik eta ondoen! Baina, tira, jarri dezagun kontaktarekin:

Garazi asko lasaitu zen bidaiak iraun zuen 5 orduetan baina eskola-aterpetxera heltzean, urduri sentitu zen.

“bidaiak aspergarria izan da, baina hemen nago! Nekatuta nago baina zuzendariak ohera ez joateko esan dit. Beste bolondres asko heltzear daude, atzeritik datoz, eta itxaron egin behar ditut. “Gaixoak” bihar datoz eta ni... nire lana zein izango den jakiteko irrikitan nago. Bidali zidaten gutunean kirola eta jolasak egingo nituela jartzen

zuen, baina... Nola egin dezake kirola gurpildun aulkian dagoen norbaitek?"

Gero eta tristeago zegoen Garazi Toledon. Etxera joan nahi zuen, bere txakur Beltzunerekin egon eta Bakioko hondartzan igeri egin lagunekin. Gauzak ez ziren berak espero modukoak. Goizeko zazpietan esnatu eta gaixoak jantzi behar zituen ohean bertan, gero, haien gurpildun aulkietan eseri eta gosaltzera eraman jantokira. Gosaria ere, ahora eraman behar zieten, eta gero erabilitako goilara eta tramankulu guztiak garbitu.

- Gosaria ahora eman? Zuk niri egiten zenidan moduan ama?

- Bai, maitia. Hankak ez ezik, kanpaldi horretarako askok ez zuten ez besorik ez gorputz osorik mugitzen. Ezta hitz egin ere.

"nire etxera joan nahi dut, Beltzunerekin mendira joan edo amarekin hondartzara! Hemen ez dut lorik egiten. Goiz esnatu eta berandu noa ohera, arratsaldeetan gaixoeekin jolastu ondoren, banan-banan dutxatu behar ditugu, eta 25 pertsona dira! Gainera bakoitzeko hiru bolondres edo egon behar gara. Ezinezkoa da hiru ordutan amaitzea. Daukadan bizkarreko mina jasangaitza da, neke eginda nago eta ez dakit zergatik etorri naizen hona".

-Egia da ama –esan zuen Elaiak- nik ere ez dut ulertzen zergatik joan den Garazi kanpaldi horretara. Ez al daki, beste batzuetan hondartzara txangoak egiten direla, antzerki eta dantzaldiak egiten direla eta bizikletaz ibiltzen garela? Gogoratzen duzu? Nik Sukarrietako kanpaldian ikasi nuen bizikletaz ibiltzen!

- Noski, pitxin! Garazi ere Sukarrietan egondakoa zen, baina udara horretan beste pertsona batzuk laguntzea erabaki zuen eta... uste dut, azkenean oso ondo pasatu zuela:

"Gaur gauza berezi bat gertatu zait. Komunean negarrez nengoela, Mamen etorri zait. Gurpildun aulkia motorea du, eta botoi bat sakatu eta bultzatu gabe ibil daiteke. Nigana etorri da eta besarkada handi bat eman dit." ¿Qué te pasa que lloras mucho?" galdetu didanean izugarri harritu naiz. Egun hauetan ez da inor nire sentimenduetaz arduratu, ezinduek bakarrik jaso dute arreta. Etxera joan nahi nuela esan diot, egoera hura oso gogorra dela.

Une horretan Kontxi agertu da bere taka-takan. Bere motxilatik zerbait hartzeko keina egin dit eta letra-taula atera du (alfabeto daktilogikoa deitzen dela esan dit zuzendariak). Atzamarrekin letrak seinalatzen hasi da, eta amaitzean negar gehiago egin dut. Ezin nuen sinistu Kontxik esaten zidana. "NO TE VAYAS; YO TE QUIERO MUCHO POR TODO LO QUE ME AYUDAS"

Ostra! Kontxik ez du hitz egiteko gaitasunik, baina badu bere iritzia emateko modua! Zeharo erratuta nengoan. Nik uste nuen esaten nituen gauzak ez zituela ulertzen! Lotsa sentitu nuen. Ni bezala ez komunikatzeak ez du esan nahi nire alboan zegoen 40 urteko umetxo hori tontoa zenik.

- Ostras, ama, Mamenek eta Kontxik asko maite zuten Garazi!

- Bai, nire pitxulita, baina, askotan, gauzak esaten ez badizkigute, ez ditugu sinisten, ezta?

- Ohh, egia da. Arrazoi duzu... hizketaldi berezi horren ostean Garazi poztu egingo zen, ezta?

- Bai! Gero eta gogotsuago egiten zuen lan, ikusi egin zuelako pertsona ezindu horiek benetan behar zutela bere laguntza eta laguntza hori bihotzez eskertzen ziotelako. Horregatik izan zen oso gogorra Garazirentzat alde egitea.

"abiadura handiko trenean nago, walkmana piztuta. Malagara heltzeko ordu bat baino ez da geratzen. Triste nago baina bestalde... pozik ere bai. Gauza asko ikasi ditut Toledon eta lagun berriak egin. Baketsu sentitu naiz pertsonak laguntzen".

- Ama, eta gauzatxo bat. Zergatik doa Garazi Malagara eta ez etxera? Eta jo, nik ere ez nekien abiadura handiko trenik zegoenik.

- O, maitia, azken bi hamarkada hauetan ez da aurrerapen teknologiko ugari egon eta garraio aldetik ere ez; orain trenak pixka bat arinago doaz baina badira 40 urte edo tren hauek sortu direla! Eta Malagara heltzeko ordu pare batekin... nahikoa zen.

Garazik gaizki tratutako edo etxe barik utzitako zaldiak zaintzen zituzten aterpetxe batean igaroko zituen bi aste.

"hau izugarri lasaia da. Etxe bat daukat niretzako bakarrik alokatuta, mendian barenna. Ez da kotxerik ez inolako zaratarik entzuten! Etxearen jabeak oso jatorrak dira. Askotan afaria egiten didate. Baina ingeles afaria, Manchesterrekoak dira eta.

Aterpetxean dagoen bolondres bakarra naiz ni. Goizetan ukuiluak garbitzen ditut eta arratsaldean zauriak sendatzen dizkiet zaldiei, garbitu, paseotxo bat eman... eskerrak Sergio hemen dagoen ni laguntzeko eta gauzak zelan egin behar ditudan azaltzeko!!!"



Garaziren bolondres lana zeharo desberdina izan zen bi aste horietan Malagan. Berak erabakitzen zuen zenbat lan egin, eta asko izaten zen nahiz eta izugarrizko beroa jasan behar izan! Arratsaldeetan, Sergio bertako langile argentinarrak zaldien sendaketarekin laguntzen zion, askok oso zauri larriak zituztelako eta kontuz garbitu behar zirelako. Zaldi batzuen izaera ere arriskutsua zen. Aurreko jabeek jo egiten zituztenez, orain beldurraren eraginez, ostikoak eta kolpeak jotzen zituzten.

- Ama, baina zergatik jo zaldi bat? Eta Garaziri ez zion beldurrik ematen han bakarrik egotea? -galdetu zuen Elaia txikiak.

- Ez dakit zergatik maitia, baina 30 zaldi zeuden, batzuk zenbait hezur apurtuta, edo argalegi haien aurreko jabeek janaririk ematen ez ziotelako.

Bertan Garazik zaldiak berarenak izango balira bezala zaintzen zituen. Oso maitakor. Garazik beti maite izan ditu animaliak, baina bereziki zaldiak!

Gau batean zaldi bat gaixorik jarri zen, arnasa hartu ezinik zegoen. Eta Garazik dei bat jaso zuen, ia jaitsi zitekeen "Yorki" ikustera. Noski, argi barik, kaxoian zegoen linterna hartu zuen eta ukuiluetara abiatu zen. Han zaratak entzuten ziren, eta bera gero eta izutuago zegoen, lapurrak izan zitezkeela pentsaturik. Zuhaitz baten atzean ezkutatu eta... aaaaa! Sergio zen! Bera ere "Yorki" ikustera joan zen! Une horretan Garazik ulertu egin zuen, munduko lekurik lasaienean zegoela, han Sergio eta etxeko ugazaba Maureen eta Kevin zituen lagun, eta hainbeste maite zituen "Yorki", "Anna", "Risa", "Caliza", "Jumper", "Lupita", "Galante"... eta gainerako lau hankadun lagunak! Ez bakarrik zaldiak; baita txakurrak, astoak, ahuntzak eta katuak ere!

Horixe zen Garazirentzako paradisua. Bere laguntza ematea, beharra zuten pertsona eta animaliei, eta horren truke onena jaso: zoriontsu izatea.

Garazik inoiz izandako udarik bereziena pasa zuen. Jendeak ia zoratuta zegoen galdetzen zion sarritan, uda besteak laguntzen eman zuelako etxetik urrun. Baina Garazik argi zuen, ze zegoen uda pasatzeko modu politagorik, eta egindakoaz guztiz harro zegoen. Esperientzia berri bat eta gauza positibo ugari zeraman etxera poltsikoetan.

- Ama! Nik garaziren moduan egin nahi dut 18 urte ditudanean! Nik ere hori sentitu nahi dut!

- Maitia –erantzun zuen amak- ez dituzu 18 urte izan behar besteak laguntzeko; ikas-kideak lagun ditzakezu ulertzen ez dituzten eskolako lanekin, aita lagun dezakezu mahai jartzen... eta oso zoriontsu sentituko zara!

- Zin egiten dut ama, aurrerantzean, gehiago lagunduko zaituztedala! Baina... nik zaldiekin ere joan nahi dut, e? Ba al dakizu Garazi berriro itzuli ote zen Malagara zaldiak ikusten?

- Ez, maitia. Uda horretan bukaeran Garazik Iker ezagutu zuen, eta urte eta erdi geroago ezkondu egin ziren, alaba liluragarri bat izan zutelako, Elaia.

- Amaaaaa, orduan, zu izan zara istorioko Garazi? Koaderno hori zeure egunerokoa da, ezta?

- Bai, printzesa, bai.

Ama eta Elaia sutondoan geratu ziren, bakoitza bere pentsamenduetan murgilduta, istorioa pausuz pausu birpasatzen, emozioak berriro sentitzen, zoriontasun horrekin ametsetan...

ANTOLATZAILEAK:



**ARRIETA • FRUIZ
GAMIZ-FIKA eta MEÑAKAko
EUSKARA ZERBITZUAK
ZURE ESKU**



**FRUIZKO
UDALA**



**GAMIZ-FIKAKO
UDALA**



**MEÑAKAKO
UDALA**



**ARRIETAKO
UDALA**

LAGUNTZAILEAK:



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

**ARRIETA: 94 615 30 65
FRUIZ: 94 615 32 10
GAMIZ-FIKA: 94 615 31 14
MEÑAKA: 94 674 21 01**